



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Ibarrako herri bidean ibilgailuen aparkaldia arautzeko udal ordenantzaren aldaketa egiteko aurretiko kontsulta

Ekarpenak aurkezteko epea, ekainak 25 arte

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:

Ibarran aparkatzeko guneak ondasun urri direnez eta egun dagoen trafiko mugimendua dela eta horien probetxua interes orokorra da, ondorioz erabiltzaile guztiei berdintasunez hau erabiltzeko eskubidea bermatu nahi da eta modu berean lege haustek ekidin nahi dira. . Araudiaren aldaketa honen bidez, egun identifikaturiko arazo eta hutsuneak konpondu nahi dira. Hala ere, nabarmendu beharra dago, errealitate berriei egokitze aldera; testu hori esparru dinamikoa izago dela eta beharren arabera aldaketak jasango dituela.

B) Onarpenaren beharra eta egokitasuna:

Araudi honetan errealitateko egoera berri hauek jaso behar direla pentsatu da, eta arreta publizitaterako, bizkortasunerako eta berdintasunerako oinarritzko eskubideak bermatzean jarri da; era horretan, bikaintasuna eta herritarrenganako hurbiltasuna bilatu nahi dira.

C) Arauaren helburuak:

Araudi aldaketa honen xedea da herri barruko aparkaldia arautzea da; aparkaldi errotazionala formula ezarriz eta aldi berean gehienezko aparkaldiak epea zehaztuz. Modu honetan aparkalekuen erabilera herritarren artean modu berdinean eta orekatu batez kudeatzen da.

Eta noski, parte hartzeko demokrasiaren filosofiarekin bat etortzeko eta elkarren arteko kudeaketaren ideia gure herritarrengan zabaltzeko, erabiltzaileekin etengabe harremanetan egoteko formula biziak



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

eta eskuragarriak jarri dira abian. Horrela, parte hartzezko kultura ezarriko da, eta, ondorioz, erabiltzaile guztiek beren kezka, kexa, erreklamazioak eta iradokizunak jakinarazi ahal izango dizkigute. Gogoan izan behar dugu gure herri barruan aparkatzeko guenak ibartar guztion ondare direla.

D) Irtenbide alternatibo posibleak, araudipekoak edo araudiz kanpokoak:

Ez da bestelako alternatibarik aurreikusten, ez araudipekoa eta ez araudiz kanpoko oraingo..

Agiri hau interesdunen esku jartzen da Ibarra Udaleko web orrian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 eta 133.4 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

E) Arduraduna: Udaltzaingo Saila.

EKARPENAK: ekarpenak non aurkeztu .Ibarrako Udaleko erregistroan (San Bartolome 2 plaza, 20400 Ibarra)